

| 2020ko urria |



Eskualdeko ekintzaileen beharrezanean erantzuna emateko asmoz, Azaro Fundazioak eta Leartibai Garapen Agentziak, negozio ideia bat duten ekintzaileei zuzendutako “Ekin Pausoz Pauso” ikastaroa antolatu dute, irailaren 30etik urriaren 9ra bitartean burutu dena.

Formakuntza honetan parte hartu duten ekintzaileek enpresaren kudeaketaren eremuko oinarrizko kontzeptuak landu dituzte, hala nola merkataritza-arloa, ekonomia-arloa, izaera juridiko ezberdinen ezaugarriak, sorrera tramiteak, lan arriskuen prebentzioa, ingurumena, eta abar. Ondoren, ikasitakoa bakoitzak bere proiektuan aplikatu beharko du. Horretarako, Azaro Fundazioa eta Leartibai Garapen Agentziaren eskutik bakarkako aholkularitza jasoko dute eta euren negozio ideien bideragarritasun plana landu ahal izango dute.

Gainera, ikastaro hau egiten duten ekintzaileei Bizkaiko Foru Aldundiaren “Langabezia eta baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako dirulaguntza” eskatzeko aukera zabaltzen zaie. Aurtengo bigarren deialdia urriaren 29an irekiko da eta azaroaren 10era arte egongo da zabalik.

